

PRENTSA OHARRA: 2021.05.31

## Kimuak 2021 film laburren deialdira 47 lan aurkeztu dira

**Ekainaren 7an emango da jakitera euskal ikus-entzunezkoen zabalkunderako katalogoa osatuko duten lanen hautaketa.**

Kimuaken 2021eko ediziora film laburrak aurkezteko epea pasa den astelehenean, maiatzak 24, itxi zen. Denera, 47 lanek eman dute izena **Etxepare Euskal Institutuak** antolatu eta **Euskadiko Filmategia** Fundazioak **Zineuskadiren** laguntzarekin kudeatutako euskal film laburren sustapena eta zabalkundea xede dituen ekimenaren 24. ediziora.

Aurkeztutako filmak aztertu eta epaitzeko, zinema eta ikus-entzunezkoen munduko bost profesional eta adituez osatutako **hautespen batzorde independentea** eratu da. Honako kideek osatuko dute:

- Vanesa Fernández: ZINEBI, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiko zuzendaria.
- Ainhoa Fernández de Arroyabe: Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea eta ikertzailea.
- Víctor Lamadrid: Cantabria en Corto film labur sustapen-katalogoko arduraduna, Cantabria Film Commissioneko koordinatzailea eta Spain Film Commissioneko presidenteordea.
- Alfonso López: Donostia Kulturako Zinema Unitateko teknikaria eta Bang Bang Zinemako kidea.

- Ana Esperanza Redondo: Donostia Zinemaldiko Hautespen Batzordeko eta Dokumentazio eta Film Departamentuko kidea.

Datorren astelehenean, **ekainaren 7an**, emango da jakitera Kimuaken 24. katalogoa osatuko duen **lanen aukeraketa**. Hautatuak suertatuko diren film labur horiek nazioarteko zinema jaialdi zein ikus-entzunezko ekimen garrantzitsuenetara bidaliko dira.

#### Info+

Beñat Doxandabaratx  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre zigarrögileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)